*Erref. FMR / Legelari aholkularia*

**JON ETXEBARRIA ORUE JAUNAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HAU**

**ZIURTATZEN DU:**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2015eko maiatzaren 28ko bilera arruntean (1/15 akta zk.), honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**5. gaia.- GUFEko aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko irizpideen 6. artikuluaren d) letra aldatzea.**

«***Lehenengoa***.- Lan-poltsak kudeatzeko irizpideen 6. artikuluaren d) letra aldatzeko agintzea. Irizpide horiek Gobernu Batzaren erabaki bidez onartu ziren, 2008ko urriaren 31ko bilera arruntean (5/08 akta. 2008ko abenduaren 24ko BAO). Aldaketa ondoren zehazten denaren arabera egingo da:

***6. artikulua. ALDI BATERAKO LAN-POLTSETAN DAUDEN PERTSONEN EGOERAK***

**d) *Aldi baterako baja***: *egoera horretan ez da kontraturik eskainiko. Baldintza hauetan izango da baja:*

*1.- Interesa duenak eskatuta gutxienez hamabost egun naturaleko epean eta alta hartu arte, egoera hauetan izan ezik:*

*A. Aste Santuan eta Gabonetan gutxieneko epea planningarena izango da.*

*B. Udan, eskatutako gutxieneko epea hilabete natural bat (uztaila edo abuztua) izango da.*

*Ref.- FMR / Letrado Asesor*

**D. JON ETXEBARRIA ORUE, SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL DE BIZKAIA.**

**CERTIFICA:**

Que la Junta de Gobierno del Instituto Foral de Asistencia Social de Bizkaia, en su reunión ordinaria de fecha 28 de mayo de 2015, Acta nº 1/15 aprobó entre otros el siguiente Acuerdo:

**Asunto 5º.- Modificación del artículo 6, apartado d) de los Criterios de Gestión de Bolsas de trabajo temporal del IFAS.**

«***Primero***.- Disponer la modificación del artículo 6, apartado d), de los Criterios de Gestión de Bolsas que fueron objeto de aprobación, mediante Acuerdo de Junta de Gobierno en su reunión ordinaria de fecha 31 de octubre de 2008, Acta nº 5/08 (BOB, 24 de diciembre de 2008), de conformidad con el tenor que se explicita a continuación, a saber:

***Artículo 6. SITUACIONES DEL PERSONAL INTEGRANTE DE LAS BOLSAS DE TRABAJO TEMPORAL***

***d) Baja temporal***: *Durante dicha situación no se ofertarán contratos. La baja se producirá en las siguientes circunstancias:*

*1.- A solicitud del/la interesado/a por un período mínimo de quince días naturales y hasta nueva alta, salvo en las siguientes situaciones:*

*A. En Semana Santa y Navidad, el periodo mínimo de baja comprenderá el del planning correspondiente.*

*B. En Verano, el periodo mínimo a solicitar será de un mes natural (julio o agosto).*

*Interesa duenak gutxienez 30 egun lehenago jakinarazi beharko dio Pertsonak Zuzentzeko Departamentuari baja-eskaera idatzizko jakinarazpenaren bidez, ondorioak izan baino 30 egun lehenago hain zuzen, udako eperako aldi baterako baja izan ezik, urte bakoitzeko maiatzaren 31 baino lehen aurkeztuko da, eta ez dira onartuko ekainaren 1etik udako planningaren azken egunera bitartean aurkeztutakoak, eta tarte horretako egunak barne hartzen dituztenak.*

*Era berean, departamentu berari zuzendutako idazkiaren bidez jakinaraziko dio lanerako prest dagoela berriz ere, eta Zerbitzu Zentraletan idazkia jaso ondorengo 3 egun balioduneko epean sartuko da berriz ere zerrendan, eta inoiz ez bajaren gutxieneko epea bukatu baino lehen.*

***Bigarrena***.- Agindua ematea erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, GUFEren iragarki-oholean eta GUFEren web orrian argitara dadin.

***Hirugarrena***.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak erabaki honek».

Hala jasota gera dadin, erabakitakoa betetzeko eta aktan erabakiko denaren zain, hau egiten dut, Bilbon, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hogeita zortzian.

*La solicitud de baja deberá ser comunicada por la persona interesada mediante escrito dirigido al Departamento de Dirección de Personas con, al menos, 30 días naturales de antelación a la fecha de efectos, a excepción de la solicitud de baja temporal para el periodo de Verano que se presentará antes del 31 de mayo de cada año, no admitiéndose las solicitudes que se presenten entre el 1 de junio y la fecha fin del periodo de planning de verano e incluya días de este periodo.*

*Igualmente, la nueva disponibilidad se comunicará mediante otro escrito dirigido al mismo departamento, y la fecha de reincorporación a la lista será 3 días hábiles después de la fecha de recepción en Servicios Centrales de este escrito, y nunca con anterioridad a la fecha de finalización del periodo mínimo de baja.*

***Segundo***.- Disponer la publicación del presente Acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia, así como en el Tablón de Anuncios del IFAS y en la Página Web del IFAS.

***Tercero***.- El presente Acuerdo surtirá efectos desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia».

Y para que así conste, en cumplimiento de lo acordado, y a reserva de los términos que resulten de la aprobación del Acta correspondiente, expido la presente en Bilbao, a veintiocho de mayo de dos mil quince.

GUFE-REN GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIA
EL SECRETARIO DE LA JUNTA DE GOBIERNO DEL IFAS

Sin./Fdo.: Jon Etxebarria Orue